

JANTOKI-ZERBITZUA

JARRAIBIDEAK

A) JANTOKI-ZERBITZUA, BERTARATZEA ETA ABAR

1. Jantoki-zerbitzua eskatzeko inprimakia ikastetxeko idazkaritzan aurkeztuko da, behar bezala beteta, sinatuta eta ezarritako epean. Aldaketaren bat egin behar izanez gero, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar da, eskabide-orria berriro betez. Aldaketa horiek urriaren 7a baino lehen baino ez dira izapidetuko.
2. Jantoki-zerbitzuaren plangintza jasotako eskaeren arabera egingo da.
3. Urriaren 7ko data igaro ondoren aldaketak edo zerbitzu-eskaerak egiten badira, idatziz eta arrazoi justifikatuarekin egin beharko dira. Bi asteko aurrerapenarekin eskatuko dira, eta, nolanahi ere, eskaera egin eta hurrengo hilabetearen hasieran hasiko dira ondorioak izaten.
4. Jantokira joan izanaren kontrol eraginkorra eraman ahal izateko, ezinbestekoa da bertaratze-hutsegiteak jantokiko arduradunari aldeztu aurretik jakinaraztea.
5. **Jantoki-zerbitzuaren eskubidea galtzeko arrazoiak** dira:
 - a) Kuotak etengabe ez ordaintzea.
 - b) Ikasleak behin eta berriz jokabide desagokoa izatea.

B) OHIKO ETA NOIZBEHINKAKO JANKIDEAK

1. Ohiko jankidea

- a) Jantokiko zerbitzua ikasturte osorako eskatu duten DBHko ikasleak, gutxienez astean hirutan joaten direnak.
- b) HEDATZE proiektuan parte hartzen duten ikasleak, hiru hilabetez jarraian eta gutxienez astean hirutan joaten direnak.
- c) **Tartekako ohiko jankidea:** banatutako guraso-zaintza edukitzeagatik edo guraso edo tutoreen lanagatik agian kurtso osoan, astez aste edo hilez hil txandaka ibili daitezkeen ikasleak.

2. Noizbehinkako jankidea

- a) Aurreko sailkapenetatik kanpo geratzen diren ikasleak dira.

C) KUOTAK, KOBRANTZAK, BEKAK ETA ABAR

- a. Garraio eskubidedun ohiko jankideak: 3,30 €/egun
- b. Gainerako ohiko jankideak: 4,60 €/egun
- c. Noizbehinkako jankideak: 5,20 €/egun

1. Jantokia erabiltzeagatik kobrantzak familiak eskatutakoaren arabera egingo dira.
2. Eskatutako modalitatearen arabera, ikasturtean ordaindu beharreko zenbateko osoaren hasierako kalkulua egingo da, eta **zenbateko bereko 9 kuotatan** banatuko da. Ikasturtean zehar aldaketarik balego, **ekaineko azken fakturan kalkulatu eta doituko da** dena. Kobrantzak hilaren 10etik 15era bitartean egiten dira, betiere hilabetea amaituta, familiak aurkeztutako banku-kontuan.
3. Ez ordaintzeagatik ordainagiriaren itzulketak hurrengo kuotari gehituko zaion **komisioa** du. Garrantzitsua da ordainagiriak ez itzultzea, horrek nahasmendu asko eragiten baititu.
4. Egunen batean jantoki-zerbitzurik ez badago (greba, etab.) ez da egun hori kobratuko. Idatziz jakinaraziko da, behar besteko aurrerapenarekin.
5. Jantokiko kuotaren **% 50eko deskontua** kasu hauetan bakarrik egingo da:
 - a) Jankideak jantokira joaten ez direnean ikastetxeak programatutako jarduera osagarrietan parte hartzeagatik, piknik zerbitzurik behar ez denean.
 - b) Jankidea jantokira astebete edo gehiago jarraian joaten ez denean, betiere gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada.
6. Jantokiko beka duten ikasleek kuotak ordaintzeari utziko diote Hezkuntza Sailaren jakinarazpena iritsi bezain laster. Une horretan, ordaindutako kuotak itzuliko dira, edo, hala badagokio, egindako zorra baliogabetuko da. Aurreko urteetan bekadun izana ez da kuotak ez ordaintzeko arrazoia izango.
7. Jantoki-zerbitzua ezin izango da erabili aurreko ikasturtean ordaintzeke zeuden ordainagiriekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero (menuak, arauak eta abar), web orrialde hauek dituzue:


<http://www.doloresibarruribhi.eus/>

<http://www.euskadi.eus/comedores-escolares/web01-a2hikasl/eu/>


Familien eta jantokiko arduradunaren arteko komunikazioa jantokia@doloresibarruribhi.eus helbide elektronikoaren bidez egingo da lehentasunez edo telefonoz/Whatsapp bidez **611800753** zenbakian.

Jantoki-zerbitzuak behar bezala funtziona dezan zuen laguntza beharrezkoa dela gogorarazten dizuegu. Edozein zalantza, iradokizun edo iruzkinen izanez gero, zuen esanetara gaude.

Ikastetxeko zuzendaritza


Abanto - Zierbena
DOLORES IBARRURI
IES - BHI

Jantokiko arduraduna



..... jaun/andrea
..... ikaslearen aita/ama/tutorea naizen aldetik jantokiari buruzko informazio hau jaso egin dut eta helbide elektroniko honetan eta telefono zenbaki honetan informazioa jasotzea onartzen dut.

Sinatuta: